

Getxoko izenak liburuaren aurkezpena

Liburuaren nondik norakoak jorratzen hasi baino lehenago eskerrak eman behar ditut, eta aitortu behar dut zerrenda ez dela laburra.

Lehengo eta behin Imanol Landa alkate jaunari eta Koldo Iturbe zinegotziari haien laguntza ezinbestekoa izan baita liburu hau kalean ikusteko. Esan behar da ez zela zaila izan liburu honen beharraz jabetzea eta txalogarria dela kulturari ematen dioten laguntza. Askok ikasi beharko lukete hainegandik.

Eskerrak euskara zerbitzuari eta Jabi Aranguenari bereziki, nirekin izan duten pazientzia eta eman didaten laguntzarengatik, ez dira makalak izan. Gutxi balitz Jabik testu osoa irakurri eta ohar interesgarriak egin zituen

Eta amaitzeko eskerrak getxoztarrei. Etxez etxe joan naiz galdezka, argazki eta abarren bila eta esan behar dut harrera paregabea eman didatela leku guztietan, batzuetan ni neu lotsarazteko modukoa. Euskal Herriko hainbat lekutan suertatu zait horrelako ikerketak gainbegiratzea eta zinez esan dezaket ez dagoela Getxo eta Algorta moduko herririk. Begi bistakoa da getxoztarrek herriari dioten maitasuna eta oro har kanpotarrentzat duten jarrera irekia.

Baina, baten batek galde lezake, eta inoiz entzun dut, Zertara dirua honetan gastatzea? Badira gauza hobeak egiteko. Baina, getxoztarrek harro daude Bizkaia zubiaz, harroago UNESCOk gizadiaren ondarea izendatu zuenetik eta ez luke inork onartuko txatarrara botatzea itsasontzientzako traba delako.

Ba, izenekin gauza bera gertatzen da, hauek ere, Gizadiaren ondarea dira, Nazio Batuek hala izendatuta eta babestu behar dira, baina babestea ez da armairuan gordetzea, jendearen esku jartzea eta erabilia izatea baino.

Liburua ez da bat-batean bururatu zaigun zerbait, urte askoren lanaren emaitza baizik. Orain dela urte batzuk aritu ziren Amagoia Aurrekoetxea berangoztarra eta Sofia Suso Otxoa de Eribe arabarra, deiturak argi erakusten duen bezala, dokumentazioa arakutzen. Bi urtez ibili ziren artxiboetan: udal artxiboa, Batzar Nagusia, Diputazioarena, jabego erregistroa etab. Ahozko bilketa ere egin zuten.

Geroago, Sofi eta biok antolatu genuen informazio guzti hori eta *Getxoko Leku Izenak* plazaratu genuen. Oriango honetan ere bion asmoa zen liburua gauzatzea baina ezin ez du legerik eta tamalez, Sofik, lana dela eta, ezin izan zuen parte hartu. Iratxe Lasa adiskidearen laguntza izan nuen, baina Elaia bere alaba jaio berriak ezinezko egin zuen laguntza hau azken porturaino eramatea. Iratxeri ere eskerrak.

Baina orain liburuaz aritu behar naiz. Getxoko izenez aritzen da liburua, toponimoak alegia. Liburuan aurkituko dituzue izenen historia, lekuen inguruko pasadizoak eta jakin izan dudanean izenen etimologia. Saiatu naiz desagertu diren etxeak mapetan kokatzen eta lan hori ez da erraza izan. Areago, zenbaitetan ezin izan dugu. Batzuetan badakigu gutxi gora behera non zeuden, Sarria ingurukoa esaterako edo Perulopetxena, Konporte inguruan. Baina Gazteluzarrean gauzak zailagoak izan dira eta ezin izan dut hainbat etxe kokatu, Santurtziena edo Malzapatarrena, esaterako.

1.300 izena aztertu dira liburuan, baina ez banan-banan. Esaterako, Ibarra sarreran agertzen dira Ibarra- osagaiak sortutako izen guztiak eta haien historia. Jende gutxi daki Ibarrabekoa lehenago Ibarjauregi deitu izan zela eta handik datorrela Ibarra leinu ezaguna edo Gosetxe etxearen benetako izena Ibarnegoabarri zela.

Ezagunenak, ez bairik gabe auzoak dira, badira Getxon bizi eta sekulan Baserri inguruan egon ez direnak. Bainan historian murgiltzen bagara beste herri desberdina ikusiko dugu. Harrigarria izan daiteke ikustea Alangoeta auzoa zabaltzen zen Trinitarioetatik Udaletxeraino eta Algorta soil soilik zela gaur egun Portuzarra deitzen dugun ingurua. Edo Benta ingurua Gorria deitu izan zela XVI. mendean eta Zubiaga beranduago.

Horrelako gauzak daude liburuan eta irakurriko duzue ez naiz gehiago luzatuko bakar bakarrik datu bat aipatuko dut, Venancios. Izen berria da, jende askok du gogoan Venancios zela bertan zegoen dendaren jabea. Baina zein da benetako izena? Guztiok ezagutzen dugun bat, Sarrikobaso, eta horrela ageri da udal artxiboan Katea eta Sarrikobaso artean egin zuten bidea egitean, gaur egun Sarrikobaso deitzen den kalea, alegia.

Ez da azken pausua, aurrerantzean beste batzuk egiteko asmoa dugu, Interneten bidez liburua etengabe berritzeko aukera edukiko dugulako.

Azkenik dei egiten diegu getxoztar guztiei hutsuneak eta hutsak betetzen laguntzeko. Beraz, zer edo zer gaineratu edo zuzendu behar dela uste baduzue aski duzue Euskara zerbitzura edo Euskaltzaindira jotzea. Era berean animatu nahi ditugu etxean dituzten argazkien kopia Bibliotekaren esku jartzea.

Mikel Gorrotxategi